# SÉXTUPLE DE EUSKADI 2019

AGILITY CHAMPIONSHIP

16, 17, 18, 19, 20, 21 | AGOSTO

SÉXTUPLE DE EUSKADI 2019
AGILITY CHAMPIONSHIP
16. 17. 18. 19. 20. 21 | AGOSTO

Nazioarteko txapelketa hau Okondo udalerrian izango da abuztuaren 16tik 21era bitartean.

Izen hori dauka 6 eguneko iraupena duen nazioarteko txapelketa handi bat delako. Egiazki, 6 txapelketa dira, egun bakoitzak, besteak beste, bere puntuazioak eta podioak dituelako.
Proba RSCEak homologatu du, eta FCIarekin bateragarria da.

Txapelketan, besteak beste, Espainia, Portugal, Frantzia, Italia, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Alemania eta Estatu Batuetatik etorritako 450 txakurrek baino gehiagok beren abilidadeak erakutsiko dituzte 3 pistatan aldi berean; ibilbideak Alemania, Finlandia eta Japoniatik heldutako munduko lau epaile onenetakoek diseinatu dituzte.

Agility Euskadi Klubak antolatutako zazpigarren edizio hau Espainiako ekitaldi handienetako bat eta Europa mailan ospe handien lortzen ari denetako bat izango da.

2019ko edizioa Okondoko futbol-zelaian izango da, udal-igerilekuen ondoan.

Txapelketa goizetan egingo da. Horrela, lehiakideek arratsaldea libre izango dute turismoa egiteko, gure lurraldea ezagutzeko, bertako baliabideak kontsumitzeko, etab.

Arratsaldeetarako zenbait jarduera proposatu ditugu baita ere: txakurrentzako ibilbideetatik zunba saio batera, final handi batetik edo agilityren selekzio espainiarraren entrenamendu irekietatik igaroz. Selekzio horrek gure ekitaldia aukeratu du irailaren amaieran Finlandian izango den munduko txapelketa prestatzeko.

Pisten ondoan aisialdirako gune bat egongo da karpa batekin eta musikarekin.

Sarrera doakoa da.

ANTOLATZAILEAK

# E P A I L E A K

Euskadiko Seikoitzeko lehiakideak probatuko dituzten epaileak Stefanie Semka alemana, Seppo Savikko finlandiarra eta 2019ko Munduko Agility Txapelketako bi epaileak, Toshiyuki Oba japoniarra eta Sari Mikkilá finlandiarra, izango dira.
Luxu handia da horiek gure etxean edukitzea, eta harro egoteko modukoa da gure gonbidapena onartu izana.
Duda gabe, gure ekitaldiaren kalitatea handituko dute.



## EGITARAUA

2019ko Euskadiko Seikoitzean, 16tik 21era bitartean (biak barne) egunero txapelketa ofizialak egongo dira 09:00etatik aurrera, 3 pistetan aldi berean.
Gainera, arratsaldeetarako beste jarduera interesgarri batzuk programatu ditugu.
Gogorarazten dugu sarrera doakoa dela, instalazioetan aisialdirako gune bat egongo dela eta Okondoko igerilekuen ondoan egongo garela.


SEXTUPLE
Club de Agility Euskadi
PROGRAMA
SÉXTUPLE DE EUSKADI 2019
EUSKADI

| | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| MAÑANA | 08:30 | 08:30 | 08:30 | 08:30 | 08:30 | 08:30 |
| | Competición Oficial | Competición Oficial | Competición Oficial | Competición Oficial | Competición Oficial | Competición Oficial |
| TARDE | 19:00 | 18:00 | 18:30 | 19:00 | / | / |
| | Ruta Canina + Exhibicion | Selección Española Agility | Final Galican | Zumba | Libre | Fin |
| | | | | | | / |

## TXAKURRENTZAKO IBIBILDEA ETA ERAKUSTALDIA

Ostiralean, 16an, txakurrekin ibilbide bat egingo dugu; gutxi gorabehera ordubeteko iraupena izango du.
Ibilbidea gurpil-aulkiarekin edo haur-kotxearekin egin ahal izango da.
Gure gidariak Txakur Punk txakur heziketako neska-mutilak izango dira, eta ibilbidearen ostean atsegin emango digute erakustaldi txiki batekin.
Giro aparta sortzen da, eta mundu guztia animatzen dugu ibilbidea txakurrarekin (lotuta) egitera eta momentu horretaz agilitystar guztiekin disfrutatzera.



# ESPAI NIAKO AGILITY SELEKZIOA

2019ko Euskadiko Seikoitza Espainiako Agility Selekzioaren topaketaren egoitza izango da.
Hemen Finlandian irailean izango den Munduko Txapelketa prestatuko dute.
Larunbatean, 17an, 18:00ak aldera, ate irekiko entrenamendu bat egingo dute.
Guztiak batera ikustea oso zaila da; aukera ona da kalitatezko agilityz disfrutatzeko.



## GALICAN FINALA

Igandean, 18:30ak aldera, final handia izango da 108 txakurrekin; 16, 17 eta 18ko txapelketa ofizialetako onenak lehiatuko dira.
Gure babesleetako batek, oztopoen Galican fabrikatzaileak, sari bikainak prestatu ditu finala irabazten dutenentzat.
2019ko Munduko WAO Txapelketako Iván Amez epaileak ibilbidea prestatuko du, txakurrek korrika egiteko aukera izan eta ikuskizun ona eskain dezaten.



## Z U N B A

Astelehenean, 19an, zunba saio handia izango dugu 19:00ak aldera.
Gurekin dibertitu nahi duen orok parte hartu ahal izango du; ez da beharrezkoa lehiakide izatea.
Iaz, Yoli Rizosa gure teacherrarekin asko izerditu genuen, eta aurten asmo berarekin dator.
Iaz bezala, saioa bideoz filmatuko dugu, guztiekin partekatuko dugun muntaia bat egiteko.



## KAMISETA OFIZIALA

Hau da 2019ko Euskadiko Seikoitzeko kamiseta ofiziala. Aurreko edizioetako kamisetak bezala, diseinu ederra dauka. Etorkizunerako oroitzapen ona izango da.
Antolakuntzak kamiseta bana emango dio lehiakide bakoitzari, baina edozein pertsonak Galicanen dendan bat lortu ahal izango du, hurrengo estekan:

[https://www.galican.com/es/sextuple-euskadi-es/513-camiseta-galican-sextuple-euskadi-2O19.html](https://www.galican.com/es/sextuple-euskadi-es/513-camiseta-galican-sextuple-euskadi-2O19.html)



## EPAILEEN KOADRANTEA

Hemen zehatz-mehatz ikusi daiteke epaileak ring eta mailen arabera nola bananduko diren.
Epaileak txandakatu nahi izan ditugu, maila guztietako lehiakide guztiek gure epaile bikainen ibilbideetan lehiatzeko aukera izan dezaten.
2019ko Euskadiko Seikoitzean, Okondoko futbol-zelaian, ikuskizun paregabea egongo da.

| SEXTUPLE EUSKADI 2019 | | VIERNES 16 | SABADO 17 | DOMINGO 18 | LUNES 19 | MARTES 20 | MIERCOLES 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| RING 1 | MANGA 1 - AGILITY G1 | TOSHIYUKI OBA | SEPPO SAVIKKO | STEFANIE SEMKAT | SARI MIKKILA | SARI MIKKILA | TOSHIYUKI OBA |
| | MANGA 2 - AGILITY G1 | | | | | | |
| | MANGA 3 - PREAGILITY | P. MARTÍNEZ | P. MARTÍNEZ | P. MARTÍNEZ | P. MARTÍNEZ | P. MARTÍNEZ | P. MARTÍNEZ |
| RING 2 | MANGA 1 - AGILITY G3 | STEFANIE SEMKAT | SARI MIKKILA | TOSHIYUKI OBA | STEFANIE SEMKAT | SEPPO SAVIKKO | SARI MIKKILA |
| | MANGA 2 - AGILITY G2 | | | | | | |
| RING 3 | MANGA 1 - JUMPING G2 | SEPPO SAVIKKO | TOSHIYUKI OBA | SARI MIKKILA | SEPPO SAVIKKO | TOSHIYUKI OBA | STEFANIE SEMKAT |
| | MANGA 2 - JUMPING G3 | | | | | | |

## ARGAZKI HANDIA

Aurreko bi urteetan egin genuen moduan, aurten 2019ko Euskadiko Seikoitzaren argazki ofiziala aterako dugu.
Nahi duten lehiakide guztiek, eta beren lagun guztiek, aukera izango dute igandean, 18an, bazkaldu aurretik gurekin argazkia ateratzeko.
Ondoren, guztiekin bereizmen handian partekatuko dugu; oroigarri ederra da.



## A R G A Z K I  H A N D I A

Txapelketako argazkiak Noa Taboas argazkilari galiziar bikainak aterako ditu; hura agilityn aditua da.
Pistetatik bere objektiboarekin gure atzetik biltzeaz gain, stand bat prestatuko du, mundu guztiak argazki profesional bat egiteko aukera izan dezan, txakurrarekin edo familiarekin, adibidez.
Horrez gain, Photocall bat instalatuko du, zuen txakurrei bere sormenarekin egindako argazki berriak ateratzeko.
Ikusgarriak dira.



## NOA TOBOASEN ARGAZKIAK

Txapelketako argazkiak Noa Taboas argazkilari galiziar bikainak aterako ditu; hura agilityn aditua da.
Pistetatik bere objektiboarekin gure atzetik biltzeaz gain, stand bat prestatuko du, mundu guztiak argazki profesional bat egiteko aukera izan dezan, txakurrarekin edo familiarekin, adibidez.
Horrez gain, Photocall bat instalatuko du, zuen txakurrei bere sormenarekin egindako argazki berriak ateratzeko.
Ikusgarriak dira.



"Las mejores fotografías
se toman
en los mejores escenarios"

AGILITY
PHOTOGRAPHY
www.NOA TABOAS.COM

SÉXTUPLE
DE EUSKADI 2019
AGILITY CHAMPIONSHIP
16, 17, 18, 19, 20, 21 | AGOSTO

## KOALAK STUDIOS PRODUKTOREA

Koalak Studios produktoreak txapelketa guztia filmatuko du. Dagoeneko Agility Euskadirekin lanean dabil "txakur nordiko batek agility egin dezake?" izeneko telesail batean.
Txapelketaren esku egongo dira bere ekipo profesionalak eta lan profesionala. Gainera, drone bat egongo da, irudi ikusgarriak eskainiko dizkigun belatz-begi bat.



## ESPARRUEN MAPA

Ikusi izugarrizko esparruan non ospatuko dela **2019ko Euskadiko Seikoitza – Agility Txapelketa.**



SÉXTUPLE DE EUSKADI
AGILITY CHAMPIONSHIP
16, 17, 18, 19, 20, 21 | AGOSTO
2019